

Zebarri

Etxebarriko aldizkaria

2001eko Ekaina

- ASPALDIKO KONTUAK
- MUSIKA ETXEBARRIN
- ITXAROPENA KIROL ELKARTEA
- EUSKARA ZERBITZUA • IPUINAK
- SAN ANTONIOKO JANTOKI BERRIA
- IKASKUNTZA KOMUNITATERANTZ...
- UDALEKUAK • JOSTEN IKASIZ

ETXEBARRIKO UDAL EUSKALTEGIA

CURSOS DE VERANO / UDAKO IKASTAROAK

Uztaila/Julio
MINTZAMEN IKASTAROA
Uztailaren 2tik 20ra

Tlf. 94 426 28 02
e-posta: etxebarri@euskalnet.net

Matrikula ekainaren 29a arte / hasta el 29 de Junio




EUSKARAREN KONTRAKO JARREREI

Asko eta asko izan dira euskarak sortu dituen jarrerak baina hain indartsua al da gure hizkuntza honelakoak gertatzeko? Badira batzuk euskara arma bezala erabiltzen dutenak beti potere politikoari begira, abertzalea zein abertzaleen kontra, hain zuzen ere.

Baina euskara ez al da gehiago? Euskaldunak mendeetan zehar baliatu dira egunerokoak egiteko inolako erabilera faltsurik gabe, baina gure politikoen, lanean hasi zirenean, erabili zuten gure arbasoen mintzoa haien planteamenduak egiteko. Nik ez dut uste guire arbasoek hau nahi zutenik, Euskara hizkuntza bat da eta zaindu beharrekoa eta horregatik gozatu egin behar dugu eta ez dugu manipulatu behar. **Euskara ez da politika eta politika ez da euskara.**

Badaude euskararen kontra egiten duten batzuk ere, eta nik galdetuko nieke zer kalte egin dien euskarak horrela pentsa dezaten. Beti lotzen dute euskara politikarekin edo eta gatazkarekin eta nik itaun egingo nieke: Euskarak ba al dauka besorik inor jotzeko? Nik ezetz uste dut.



Euskara euskaldun egiten gaituena da eta garrantzitsuena hauze da denon artean zaindu egin behar dugula eta gozatu egin behar dugula. Ez dugu hainbeste euskarari buruz hitz egin behar eta gehiago egin behar dugu euskaraz. Etxebarrin ere posible da erlazio euskaldun bat izatea eta denon artean aurrera atera behar dugun konpromezua da. Euskarari berea eman behar diogu eta eguneroko berbarekin on egingo diogu.

Zabarri ren irakurle orori nahi nioke bihotzeko aipamen hau egin. Euskarak utzi dituen sentimendu ezberdin guztiak plazaratzearena, sentimenduak bultzatu duen aipamen berezi bat:

"EGIZUE EUSKARAZ GEHIAGO EUSKARAREN GAINEAN BAINO."

Joseba Pérez
Zinegotzia

ESKERRIK ASKO
KORRIKAN PARTE
HARTZEAGATIK
E t x e b a r r i !



Korrika Etxebarriko kaleetan

"ETXEBARRIKO JAIK"
PEGATINA LEHIAKETAREN
IRABAZLEA

Ainhoa IZAN DA
(Ume euskaltegia)

ZORIONAK!

(Partaide guztientzat oparia egongo da)



ASPALDIKO KONTUAK

Carmen Gerrikabeitia, "La lechera de la Torre"

Gaur egun oraindik sasoian dagoen emakume honek, gazte gaztetatik esne saltzaile lanetan aritu zen eta orduko bizimoduaren gorabeherak kontatu dizkigu.

*Non jaio zinen Carmen?

Ni "La Torre" baserrian jaioa naz, Kukullagan. 10 neba arreba gintzen eta neu txikiena.

*Noz hasi zintzen esne saltzaile?

Ez deukot akorduen baina 14 - 15 urte gaz edo. Beste aizte guztiek **krieda** joan ziren Bilbora eta neu **parau** nintzen baserrien.

Kantintxu bategaz joaten nintzen esniagaz. Ezkondata gero be nire umiak handiek izan arte segidu nendun horretan, 25 edo 30 urte igoal.

*Zelakoa zan zure biximodue orduen?

Oraingoan aldean pozik bixiten gintzen. Goizeko betan altzetan nintzen. Baserrien hasta 9 behi batu behar ninduzen, soloan **bihar ein** ta gero esne saltzean. Gaztetan asko eiten da eh?

Behiek batuten nenduzan ensegida eta ederto. Nire gizonak batu ezkerre erdie ateraten euen, berak ez euen gure, ez jakon gustetan **arien** be. Ni inguruko etxeetan ibiltzen nintzen eta "Bandas" era (Uribarrira) joaten nintzen baserrietara.

*Zelan eiten zendun esnea batetik bestera eroateko?

Nire gizonak bajatuten euezan kantinek Kukullagako beheko aldera. Kadaran jarrita 12 litro igoal eroaten nenduzen. Nik ez nendun astorik, baye Gomesenekoak, Atutxanekoak eta Pozokoetxekoak be astoagaz salduten euezan.

*Zenbatean egoan orduen esne litroa?

Esne litroa erreal batean salduten zan. Igoal 20 litro salduten nenduzan egunian.

*Problemarik eukiten zendun denpora beroakaz eta?

Bai inoiz bai. Betrinarioak iodoa emoten euskun esnari botateko ez galduteko. Inoiz galduten bazan orduen esnerik bape be ez nendun salduten eta gero gaez behiek barriri batu behar eta esne saltzean joaten nintzen.



*Zer zan gustokoena zure biharrean?

Etxe batean berba ein eta beste batean berba ein denporea majo pasetan zan. Ni **ezaune** nintzen eta euki nintun **bezeri** onak. Ahí viene "Carmen la lechera" edo "La de La Torre" esaten eustien. Gogorra be bazan, igoal gana txarragaz da **itxun** ohien apur baten eta ostera be bajatu behar esneak emoten.

Kariñoa **koxitzen** zeuntzen jenteari.

*Ondiño be akordetan da jentea zugaz?

Bai horixe! Asko akordetan direz zelan eroaten neuen behien kalostroa, behiek umea eiten eueanean geratuten zan esne lodi – lodie. Jenteari asko gustetan jaskon kalostroa azukerie potata. Edurre eiten oan orduen etxera etortzen ziren askotan esnetan.

*Zelan eiten zendun berba jenteagaz?

Han goien, Kukuiagan euskaraz bata besteagaz. Esne saltzean erderaz, gu **arpelak** izan gares, bata besteari beti erdaraz ein dotsegu.

*Ba dekozu kontakizunik edo anekdotarik akorduen?

Baten behi batek txahala ein oan. Geroago kortara bajatu gintzen eta beste bat! Hori bai izan zan gauze ederra, **bikotxak** eitea! Suerte itzela euki gendun guk behiekaz.

*Zer dozu gurago, orduko bizimodue ala hau?

Bizimodu polite izaten zan. Oingo gaztiek ez daukie alegrantzirik bez, ezebe ez daurie estimetan.

HIZTEGITXOA:

Krieda: Neskame
Parau: Gelditu, egon
Bihar ein: Behar egin, lan egin
Arien be: Batere ez
Ezaune: Ezaguna
Bezeri: Bezero, kliente
Itxun: Etzan
Koxitu: Hartu
Arpelak: Alferrak
Bikotxak: Biziak

ETXEBARRIKO UDAL LIBURUTEGIA

Koldo Ramos

Euskaltegia: Zein da liburutegiko ordutegia?

Koldo: Azterketa garaian ordutegi berezia dugu.

Goizez: 9.30 – 13.30

Arratsaldez: 16.30 – 20.30

Urtean zehar ordutegi arrunta dago.

Goizez: 11.00 – 13.30

Arratsaldez: 16.30 – 20.30



E: Zer egin behar da liburutegia erabili ahal izateko?

K: Ezer ez. Sartu baino ez. Nahi dituzun aldizkariak, liburuak... aukeratu, hartu eta irakurri. Mailegu Zerbitzua erabili nahi baduzue, txartela edo karneta ateratu behar duzue.

E: Zenbat urte darama liburutegiak zabalik?

K: Hamahiru urte.

E: Zenbat lagun etortzen da egunero?

K: Laurogeita hamar bat.

E: Zertara etortzen da jendea? Hemen irakurtzen ditu liburuak ala nahiago du etxera joan? Jendea gauza askotara etortzen da, adinaren arabera: umeak normalean etxerako lanak egitera etortzen dira; Nagusiagoak direnean, etxerako lanak egiten dituzte baina horretaz gain liburuak irakurtzera ere etortzen dira.

E: Zein liburu mota nahiago dute umeek?

K: Umeek normalean abenturazkoak, ipuinak... Gazteek erabiltzen dituztenak aldizkariak, egunkariak... eta lanak egiteko behar dituzten liburuak ere bai.

Adinekoek aldizkariak eta egunkariak, baina baten batek umeentzako ipuinak ere hartzen ditu.

E: Urtero zenbat liburu erosten duzue?

K: Guk badugu aurrekontu bat eta adibidez Entziklopedia bat erosten badugu, 200.000 pezeta inguru ordaindu behar da. Bestaldetik monografikoak erosten baditugu ere desberdina da. Guk daukagun aurrekontuaren barruan badugu Eusko Jaurlaritzak ematen diguna eta beste alde batetik Udalak ematen diguna. Guztira 800.000 pezeta inguru da.

E: Zenbat liburu daude?

K: Saikaturik: 7.200 ale.

Saikatu gabe kutxa asko ditugu.

E: Zer kontu dezakezu Liburutegiak antolatutako Ipuin Lehiaketei buruz?

Alde batetik Ipuin Lehiaketak daude, aurtun 5. Edizioa izango da. Emaitza nahiko ona izaten da. Partehartzaileak umeak izaten dira eta gero eta jende gehiago aurkezten da (Basaurikoek ere deitu izan dute haien partehartzeaz galdetzeko). Edizio honetan adinaren araberako sailkapena egin dugu eta espero dugu dena ondo ateratzea. Beste alde batetik birritan aurkeztu gara Madrilen antolatzen den Lehiaketa batera, Kultura Ministeritzak besteak beste. Bi sari irabazi ditugu aurkeztu ditugun proiektuekin (gure Ipuin Lehiaketak). Sariak liburuak izan dira. Bakoitzean 200 liburu oparitu digute umeentzat eta nagusientzat. Honelako liburutegi batentzat oso sari onak dira, askotan aurrekontua berehala amaitzen baita.

EUSKARA ZERBITZUA

Euskaltegia: Nola sortu zen eta zein da Euskara Zerbitzuaren funtsa?

Euskara Zerbitzua: Herriko zenbait talde eta elkarteetan aspaldian somatu da euskararen aldeko zerbitzu baten beharra. Beste alde batetik Udalak ere ikusi du udalerrri mailan Euskararen Normalizazio prozesua aurrera eramateko zerbitzua martxan jarri beharra zegoela. Urritik hona darama martxan.

Zerbitzuaren funtsa etxebarritar guztiei **euskararen aldeko zerbitzu publiko** bat eskaintzea da.

E: Zein egoeratan erabil dezakegu zerbitzu hau?

E.Z.: Hasieran egon arren, apurka apurka hainbat arlo jorratu nahi ditugu. Momentuz, edozein dokumentu edo idazki euskaratu nahi duten elkarte zein herritarrek lasai bidali dezakete Euskara Zerbitzura; euskarari buruzko edozein informazio lortu nahi badute, hau da, euskara ikasketei buruz, dirulaguntzak jasotzeari buruz hona jo dezakete.

E: Herriko jendeak badaki Zerbitzu hau martxan dagoela?

E.Z.: Nire ustez oraindik ez da ondo ezagutzen. Denbora laburra pasatu da eta ez da nahikoa.

Sarritan ez da denbora kontua, interesa baizik. Begira Euskaltegiaren kasua, urteak daramatza martxan eta hala ere egongo da baten bat non dagoen ez dakiena. Gure lehenengo lana horixe izango da hain zuzen, zer garen, non gauden jakinaraztea eta **herritarrek euskararen alde sentsibilizatzea**.

Momentuz zenbait talde hurbildu da haien kartelak euskaratzeko, jailetako programak, ikastaroak eta abar. Dirulaguntzez galdetzeko edo euskaraz tramiteren bat egiteko kontsultak ere egon dira.

E: Uste duzu Zerbitzua dagoen lekua aproposa dela?

E.Z.: Bekosolo Parkea leku ederra da benetan. Herritarren erosotasunari begira baliteke kokapena ez izatea onena, baina herri honetan zaila da gauzak ondo kokatuta egotea, hau da denon gustora. Ados egongo zarete nirekin ezta?

E: Zein ekintza pentsatu duzu bai euskara zabaltzeko bai jendeari Zerbitzua ezagutarazteko?

E.Z.: Batez ere hiru arlo jorratuko ditugu: haurrak, familia eta aisialdia. Alde batetik umeekin eta gurasoekin lotuta egongo diren ekintzak: Guraso eta bikote gazteentzat euskara ikasteko sentsibilizazio kanpainak, euskara ikasteko dirulaguntzak, aurten lehenengoz herritik kanpo euskara ikasten dutenentzako dirulaguntzak izango dira. Umeentzat eskolan eta eskolaz kanpoko ekintzak, eta aisialdian kirola eta kultura euskaraz landu nahi genuke bereziki gaztetxoek zuzenduta.

Gazteen arloa bereziki zaila iruditzen zait. Gazteak eta euskara konektatzeko benetako motibazioa lortu behar da eta hori da zailena Etxebarri bezalako herri erdaldunetan.

E: Umeen artean kalean euskara gehiago erabiltzeko, badago proiekturen bat?

E.Z.: Aurrera begira horixe izango da bultzatu nahi dugun arlo bat, izan ere eskolatik kanpo umeek ez dute aurkitzen euskaldun girorik eskolatik irtendakoan, kalean. **Ludotekak** euskaraz eskaintzea, **kirola edo musika** zein beste eskolaz kanpoko ekintza batzuk euskaraz ere eskaini ahal izatea, kirol eta kultur taldeetako **begirale edo monitoreak** euskalduntzea izango dira aurrera begira jarriko ditugun helburu batzuk.

E: Zerbitzu honen bidez uste duzu euskarak aurrera egingo duela?

E.Z.: Horren esperantzan hasi gara lanean. Hala ere, Etxebarrin helburu apala dugu momentuz, herritarrek sentsibilizatu nahi ditugu euskara eguneroko bizimoduan erabili daitekeela ulertaraziz eta bizirik dagoen hizkuntza dela erakutsiz. Geroago etorriko da euskara kalera ateratzea eta Etxebarri euskalduntzea.

E: Zeozer gehitu nahi baduzu...

E.Z.: Uste dut oso garrantzitsua dela zuek jakitea zuen esku egongo dela hemendik aurrera Etxebarrin euskarari bultzada ematea eta euskara ikastea eta erabiltzea. Kontuan hartu gero eta gazte gehiago zaretela euskaldunak baino oso gutxi erabiltzen duzuela oraindik. Horregatik euskaldun guñeak sortu behar direla uste dut euskaldun giroa sortzeko eta hori da besteak beste Euskaltegiaren egitekoa edo Euskara Taldeena.

Azken batean **euskara da euskaldun egiten gaituena**.



SAN ANTONIOKO JANTOKI BERRIA

San Antonioko Herri Ikastetxean (Haur Eskolan) orain dela bi aste zabaldu dute jantoki berria. Bertako bi langilerekin izan gara eta honako hauek kontatu dizkigute:

Euskaltegiak: Zenbat lagunek egiten du lan jantokian?

Langileek: 5 lagunek, bat sukaldean egoten da, platerak, edalontziak, garbitzen ditu, den dena jaso behar du... besteek bazkaria zerbitzatzen dugu, umeei jaten laguntzen diegu eta bukatutakoan kanpora irteten direnean, hor egoten gara guztiok zaintzeko (jolastu bitartean parkean).

E: Zenbat ume dago jantokian?

L: 54 ume inguru, bi urtetik 6 urtera, gehienak hiru urtekoak dira, oso zintzoak dira, Normalean ez da inolako arazorik egoten. Eguraldi txarra egiten duenean, ezin dute kanpoan jolastu baina barruan ere ondo pasatzen dute.

E: Nork ekartzen du bazkaria egunero? Bertan egiten/prestatzen duzue ala enpresaren batek egiten du?

L: Ez, bertan ez dugu ezer prestatzen. "Gastronomia Cantabrica"-k ekartzen du egunero, Arrigorriagakoak dira.

E: Zein ordutan heltzen dira GASCA-koak?

L: 12ak aldera, nahiko puntualak izaten dira eta ez dute inoiz huts egin. Behin batean gidaria gaixorik jarri zen eta beranduago etorri zen, ordubete beranduago. Guk umeak entretenitu behar izan genituen, nola eta abestuz!

E: Zergatik da hobia oraingo jantokia?

L: Oso polita, handia eta modernoa delako. Kristal handiak jarri dituzte, apurtezinak! Komunak ere bereziak dira, umeentzako proposak, txiki txikiak direlako. Guretzat ere aldagelak jarri dituzte, dutxak eta komunak...

E: Zeozer falta zaio jantokiari?

L: Bai. Oraindik gauza batzuk falta dira, adibidez gakoak, margoak, telebista eguraldi txarra egiten duenean filmeren bat ipintzeko... Ume txikienezako mahai borobila jarriko dute zaintzaileak hobeto kontrolatzeko umeak. Beste arazo batzuk ere badaude, oraingo jantokian bi urteko umeek ezin dute bazkaldu, ostean siesta egiteko lekurik ez dagoelako. Horretarako eskolara joan behar dute eta kanpora irten. Eguraldi txarra dagoen arazo handia da. Jantokitik eskolaraino teilatu bat jartzeko asmoa dago baina mugitzea ez da ona izango.



E: Zer jaten dute umeek?


L: Bai, denetatik jaten dute. Gurasoei hiru hilabeteko menua ematen diegu beraiek jakiteko umeek zer jaten duten. Gainera 2 urteko umei egunero ohar bat ematen diegu egun horretan zelan bazkaldu duten baita lokuluxka ere zelan egin duten azalduz.

Guraso askok galdetzen digu, beraz, hori egitea erabaki dugu.


E: Pasadizorik edo izan duzue?

L: Normalean dena ondo doa, oso txikiak dira eta kasu

egiten digute, zintzoak dira. Nagusiagoak direnean, arazoak egon daitezke zeozer gustatzen ez zaienean edo borroka egiten dutenean.



IKASKUNTZA KOMUNITATERANTZ...



San Antonio ikastetxeak, aurten, proiektu berria martxan jarri du: Eskola Ikaskuntza Komunitate bihurtu. Zertan datza Ikaskuntza Komunitate hori?

Gure abiapuntua zera da: eskola porrota eta elkarbizitzako arazoak gainditzeko irakaslegoa, ikasleak, familiak, elkartek eta komunitateko bolondresak elkarrekin lan egitea da.

Honez gain gaur egun informazio gizarteak sortzen dituen baharrei erantzuten izan behar du gure erronka: horretarako ikasleei kalitatezko ikaskuntza eskeini maila guztietan:

- **Instrumental mailan**

Ikaslearen garapenerako beharrezkoak diren oinarrizko ezagupenak.

- **Informazioa prozesatzen, aukeratzen eta sortzen.**

Gaur egun informazio guztia barneratzen saiatzea ez da bidezkoa, berehala zaharkitua eta erabat desfasatua gelditzen baita. Garbi dago ba ikasleei informazioa prozesatzen, garrantzizkoa dena aukeratzen eta egoera desberdinetan erabiltzen irakastea izango da gure lana.

- **Talde lanerako gaitasuna**

Elkarlaguntzen eta elkarlanean gai diren ikasleak hezi behar ditugu, gero lan mundura iristen direnean hori eskatuko dietelako.

- **Sozializazio mailan**

Eskola da gunerik egokiena ikasleak gizartekotzeko, inguruan integratu ahal izateko, elkarrizketa eta kritika gaitasunak garatuz.

Proiektu hau martxan jartzeko funtsezkoa da umeekin harramena duten pertsona eta talde guztien planifikazio bateratua, banakako ikasketak etxean, eskolan, kalean... jasotzen dutenaren interakzioaren emaitza bait dira.

Hau da ba gure Hezkuntza komunitatearen helburu nagusia eta hau lortu ahal izateko saiatzen ari gara, alde batetik eskolako giza eta material errekurtsu guztiak martxan jartzen ikasleari behar duen guztia eskeintzeko, eta bestetik komunitate guztiaren partehartzea bultzatzen.

Guraso eskola: "Formatzeaz gain beste zenbait aspektu ere garatzen ditugu: harreman pertsonalak, lagun berriak... eta gainera, eguneroko monotoniarekin hausten dugu, gure seme-alabekin eskolara goaz, eta hau, beraientzat oso inportantea da.



San Antonio Ikastetxea

MUSIKA ETXEBARRIN

Etxebarriko herrian, musika hezkuntza "Soñuzale" elkartearen esku dago. Elkarte hau Bekosolo parkeko txalet urdinean dago kokatuta.

Egoitza hau Etxebarriko udalarena da eta dirulaguntza bat ematen digu urtero klaseak ematen ari diren irakasleei ordaintzeko.

Bi motatako ikasleak daude gure elkartean: Batzuk kontserbatorioan sartzeko ikasten ari dira eta besteak, musika tresna bat jotzen ikasi nahi dutelako "hobby" bezala. Edonor matrikula daiteke lau urtetik aurrera, hala ere ikasten ari direnen artean %80 neskak dira. Mutilei ez ote zaie musika interesatzen?

Gure ilusio handiena musika talde bat osatzea da, eta espero dugu, hori hurrengo urteetan lortzea.

Zu ere interesatuta bazaude, badakizu, anima zaitetz eta izena eman!!!



ITXAROPENA KIROL ELKARTEA


Itxaropena kirol elkarteak Etxebarriko Bekosolo parkeko txalet arrosan kokatzen da eta elkarte honek karate, aerobic eta gimnasia klaseak eskaintzen ditu.

Karate klaseak umeentzat ematen dira astearte eta ostegunetan. Aerobic klaseak astean hirutan ematen dira: astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizez (10:30etatik 11:30etara) zein arratsaldez (6:30etatik 9:30etara)

Aerobic klase hauetan ariketa eta ekintza mota desberdinak egiten dira: step, muskulazioa, pesak, aerobic, dantzak... Guztiak oso dibertigarriak eta gorputzerako oso osasuntsuak.

Mantenimendu edo rehabilitazio klaseak ere ematen dira, hauek gorputz arazoei egokituta eta gorputzerako onuragarriak.

Itxaropena Kirol Elkartean eskaintzen diren ekintza guztiek Udalaren dirulaguntza jasotzen dute. Beraz, badakizu, anima zaitetz eta etorri gurekin martxan jartzeralll



AINTZINAKO OGIA, GAURKO HOBBYA

Dakizuenez herrian badugu brodatu eta joskintza ikasteko leku aproposa: Elizarako bidean, 3an hain zuzen ere, edo denontzat ezagunagoa den "maisuen etxean". Bertan, joskintzaren arduradun eta irakasle den Begok hainbat gauza kontatu digu, garrantzitsuena, denbora pasatzeko aukera paregabea dela azpimarratu digu.

Ordutegia oso zabala da, goizeko hamaiketatik ordu bata arte eta arratsaldeko ordu bietan hasten dira berriro zortzi eta erdiak arte, klase bakoitza bi ordukoa delarik.

Matrikulak 2.000 pezeta balio du eta hileroko kuota 1.500 pezetakoa da herritarrentzat eta 2.000 kanpotarrentzat. Kopuru hauek berdinak dira bai josten ikasteko eta baita brodatzen ikasteko ere. Ikusten denez, dirua ez da oztopoa, eta adina ere ez, izan ere, hamar urtetik aurrerako edonor joan baitaiteke.

Batzuek amaieran diploma jasotzen dute. Gazteek batez ere, titulua lortzeko ikasten dute baina nagusiek denbora pasatzeko eta beren arropak egiteko josten dute. Herriko jaietarako mozorroak prestatzen dituzte, inauterietako...

Badauzkate dirulaguntza batzuk ere: Udalarena eta Bizkaiko Foru Aldundiarena. Euren esanetan ez da nahikoa baina saiatuko dira beste batzuk lortzen.

Ikasleek diote brodatua ikusgarriagoa dela eta lan bat hasten dutenean "engantxatu" egiten direla ahalik eta arinen amaitzeko. Denetik brodatzen dute bertan: jantziak, esku-oihalak, ikurrak, zetazko xalak...ez dago mugarik.

Ikastaro bietan kontatu digute "terapia" antzeko zerbait dela hori haientzat, arazoak ahazten dituztela, edozein gairi buruz hitz egiten dutela...Baina hala ere badagoela hutsune bat: mutilak falta dira!!

Hemendik beraz, animatu egin nahi ditugu gure herriko mutilak hona etorri eta bere futbol taldearen, musika taldearen edo beste edozein eskudo brodatzera. Ez dira esku-oihalak hemen brodatzen den bakarrai

Egin dituzten brodatu eta joskintza lanekin erakusketa bat egingo dute ekainaren 8,9, eta 10ean Kultur Etxean.

Eta amaitu baino lehen eskaintza bat egiteko aprobeztatuko dugu: josteko makina batzuk daude salgai bertan. Erosi nahi baduzue, egin osteratxo bat akademiara eta bertan ikusi ahal izango dituzue.



ETXEBARRIN ERE UDALEKUAK

Aurten ere, Etxebarriko Udalak 8-12 urte bitarteko umeentzako udalekuak antolatu ditu eta horri buruzko informazioa jasotzeko, Aitor Romeo udaletxeko Kultur Teknikariarekin hitz egin dugu eta berak hainbat zehaztasun eman dizkigu.

Duela lauzpabost urte Ongizate saila konturatu omen zen beharrezkoa zela etxean "arazoak" zeuzkaten umeentzat harremanak hobetzea eta hori hobetzeko udalekuak egokiak izan zitezkeela erabaki ondoren lehenengoak antolatu ziren. Geroago herriko ume

guztiengana zabaldu zen ekintza honetan parte hartzeko aukera. Baina oraindik ere, helburua balore onak, elkarkidetzeta, gauzak konpartitzea...izaten jarraitzen du. Ez dira denbora pasatzeko ekintza hutsak, denbora horretan heztea baino ekintza ludikoen bidez.

Udaleku hauek uztailaren hasieratik Etxebarriko jaiak hasi arte izango dira eta aurreko urteetan bezalako ekintzak izango dira aurtengoan ere:

Lehenengo egunean jai handi bat Bekosolo parkean, pailazo, txotxongilo, tippi, mozorro eta abarrekin. Hurrengo egunetan tailerrak eta eskulanak egongo dira eta zenbait irteera ere egingo da haien artean Miramongo Zientzia museora, Pobeña aldera piraguetan ibiltzera, igerilekuetara, eskalada egitera eta abar.

Udaleku hauetan begiraleak dira arduradunak, eta horregatik ez da komenigarria gurasoak bertara joatea, hauen lana oztopa ez dadin. Hala ere, begiraleez aparte, beste hainbat lagunek ere hartzen du parte antolaketan: kale hezitzaileak, familia hezitzaileak, kultur teknikaria...



Alde ekonomikoari dagokionez, Foru Aldundiaren eta Udalaren aldetik dirulaguntzak jasotzen dira ekintza hauek antolatzeko eta horiek dira finantza iturri nagusiak, hala ere parte hartzaileek kuotatxo sinboliko bat ordaindu beharko dute.

Bukatzeko esan, udaleku hauek gero eta arrakasta handiagoa dutela, umeak pozik geratzen direla eta urtean baino urtean parte hartzaile gehiago izate direla eta eskaintza ia-ia musutruk dela.

NON SARTU NAIZ?

Gure herriko neska batek, Izaskun Yeregik, Habek antolatutako "egonaldiak familia euskaldunetan" parte hartzea erabaki zuen opor ezberdinak pasatu eta bide batez euskara gehiago ikasteko. Bi urtetan zehar aukeratu zuen uda emateko esperientzia hau: lehenengo urtean Errezilen egon zen, eta bigarrenean Larraulen, biak ere Gipuzkoan.

Hasiera baten, bai egoera bera eta baita hizkuntza berria ere zail egin zitzaizkion baina pixkanaka -pixkanaka egoera berri horretara moldatuz joan zen. "Lehenengo momentuan galduta nengoela pentsatzen nuen eta behin eta berriro galdetzen nion neuri buruari ea non sartu nintzen" dio Izaskunek, baina berak onartzen duen bezala normala da hori sentitzea hasieran: "lehenengo astean ez duzu ezer hartzen, bigarrenean zure etxeokak ulertzen hasten zara, hurrengoan zertxobait herritarrei eta azkenean... ba joan egin behar duzu". Hilabetea ondo neurtuta beraz.

Gorago aipatu bezala, lehenengo urtean Errezilen pasa zuen hilabete bat adineko bikote eta 28 urteko neska batekin batera bizitzen. "Egun osoa eztabaidan ematen zuten eta ni bitartean kalean ibiltzen nintzen nire egoeran zeuden beste gazte batzuekin guztira hamabost bat baixeunden antzeko egoeran" Hori bai, parranda egiteko aukera zeukatenean, ikasle guztien artean aprobetxatzen zuten: "goizen heldu nintzen egunean 12etan izan zen eta hori lan egunetan. Asteburuetan eguna zabaldua heltzen ginen etxera". Lanik edo egin behar zuen galdetu ondoren, hau erantzun zigun: "lehenengo urte honetan lo eta lo besterik ez nuen egiten, neure ohea ere ez nuen egiten altxatu ondoren. Atera kontuak"

Hurrengo urteko esperientzia erabat ezberdina izan zela diosku "Bigarren urtean badakizu zertara zoazen eta ni, behintzat, euskara serioago ikastera joan nintzen". Larraulen pasatu zuen uda hori, mendian galduta dagoen 600 biztanleko herri txiki batean "herri horretan taberna bi eta etxe banaka batzuk baino ez zegoen, gainontzeko baserri eta biztanleak mendian galduta" eta bi tabernetako batean egokitu zitzaion familia Izaskuni.

Etxera itzultzeko orduan beste arazo bat sortzen da "etxera bueltatzen zarenean euskaraz pentsatzen eta mintzatzen zara eta berriro gazteleraz pentsatzen hastea gogorra da" diosku berak.

Dena dela, Izaskunek oraindik harremanetan jarraitzen du Larraulgo familiarekin eta ahal duenean hara joaten da "Aste Santu honetan egin nien bisita" baina orain eta Etxebarrin hizkuntza mantentzea da zaila gertatzen zaiona: "salatzen naiz euskal telebista ikusten eta Larraulera joaten naiz zenbaitetan, baina lagunaren artean edo familian euskaraz egin ezean oso gaitza da"



HIRU DANBORRAK

Baziren behin hiru danbor. Sorgin gaizto lodi eta itsusia ere bazegoen. Itxusoldi deitzen zioten. Danborrak Tontin, Danborrin eta Listin deitzen ziren.

Hiru danborrak erregearen gaztelura joan ziren eta erregeak esan zuen:
-Itxusoldi sorgina inguruetan dabil eta nire alaba maitea desagertzea nahi du.
Orduan printzesak galdetu zion Danborrini:

-Norentzat da eskuan daramazun lore sorta hori?

Eta Danborrinek erantzun zion :

-Nire emazte izan nahi duenarentzat.

Eta printzesak esan zuen:

-Ba ni izan ahal naiz zure emaztea. Gaur nire urtebetetzea da, baina sorginak txikia nintzenean esan zuen hogeita bi urte betetzean hilko nintzela.

Danborrinek esan zuen:

-Bueno , ez du inporta, bere gaztelura joango naiz nire anaiekin.

Sorginaren gazteluraino joateko bide txiki bat zegoen. Bidean Tontin eta Listinek ikusi zuten iratxo ertain bat zegoela zuhaitz batean soka batez lotuta, Askatu zutenez, mesede bat egin zion Danborrini. Mesedea izan zen haiek danborra jotzen zuten bitartean jendea dantza egiten hasiko zela.

Azkenean sorginaren gaztelura heldu ziren. Sorgina hain lodi zegoenez, zazpi aulki behar zituen. Orduan Tontin bere danborra jotzen hasi zen. Sorgina altxatu zen eta jausi egin zen eta zulo handi handia egin zuen lurrean.

Sorginak ezin izan du inoiz atera zulo horretatik eta Danborrin eta printzesa ezkondu ziren eta zoriontsu bizi izan ziren.

Miriam Martin Saenz.

7 urte

Barandiaran ikastetxea.



BI MARINEL OSPITALEAN

Behin batean, bi marinel bizi ziren eta egunero joaten ziren itsasora. Egun batean zazpi amuarrain harrapatu zituzten eta beste egun batean ehun bokarta.

Beste egun batean bi marinela itsasora joan ziren arrantza egitera eta harri altu-altu bat ikusi zuten eta harri gainera igo ziren eta sirenak zeudela ikusi zuten eta harritik jausi ondoren zauritu egin ziren eta uretan oso larri geratu.


Eta etorri ziren beste marinel famatu batzuk eta batek esan zuen "ze arrain mota ote da hori?" eta besteak erantzun zion "goazen ikustera". Eta zer zen ikustera joan ziren. Eta noski, bi marinela ziren. Orduan erabaki zuten gaiso zeudenez ospitalera eramatea. Eta ospitalean frogak egin zizkieten biei baina ezin izan zieten ezer egin beraz, ebakuntza egin eta gero sendatu egin ziren marinel biak.

Eta berriro joan ziren itsasora eta berriro harrira igo ziren eta ezkongabeak zirenez sirenatxoekin geratu ziren eta zazpi seme-alaba eduki zituzten: Sendoa, Asier, David, Adrian, Dani, Miriam eta Aisbea. Eta semeak eta alabak ere ezkondu egin ziren eta seme-alabak izan zituzten, marinela eta sirenatxoak aitite-amama bihurtuz.

Eta herrian soltero zeuden guztiak ere itsasora joan ziren eta harrira igo ziren eta sirenatxoekin egon ziren eta haiek ere seme-alabak eduki zituzten eta aitite-amama egin ziren.

Halan bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten...

Patricia Lucio Perez. 8 urte
Barandiaran ikastetxea.



IRRATIAK

FM	Euskadi	Bilbo Hiria	Bizkaia	Euskadi
	Irratia	Irratia	Irratia	Gaztea
	94.4/95.2	96.0	102.5	103.5

HELBIDE INTERESGARRIAK

		Web orrialdea
Egunkari/Aldizkariak	Euskaldunon Egunkaria	www.egunkaria.com
	Zabalik astekaria	www.diariovasco.com/zabalik
	Argia aldizkaria	www.argia.com
	Habe aldizkaria	www.habe.org
	Elhuyar aldizkaria	www.elhuyar.com/aldizkaria
	Aizu aldizkaria	
Herri aldizkariak	El Social aldizkaria	
	UK (Uribe Kostako aldizkaria)	
	Gaztetxulo aldizkaria	
Euskara Taldeak	Euskarabarri (Etxebarriko euskara Taldea) Txus-94 426 32 92	
	Euskarabilla	
Parrandarako euskal giroa	Kafe Antzokia (Bilbon, Zenbat Gara San Vicente eliza)	
	Kalderapeko (Lizardi euskaltegia, Perro kalea)	



**ETXEBARRIKO
VDALA**



Euskara ikasteko dirulaguntzak

Ayudas económicas para aprender euskera

Etxebarrin zein herritik kanpo ikasteko
En Etxebarri y fuera del municipio

En el curso 2001/2002 Ikasturtean

**EUSKARA IKASTE
ERRAZA ETA MERKEA
IZANGO DA!**



*Etxebarriko Udalak euskara
ikasteagatik laguntza
paregabeak emango ditu!*



*Ikastaro guztietan
matrikularen %50
berreskuratu ahal izango
duzu.*



*Astialdi edo kirol talde
bateko begiralea bazara
"dirulaguntza bereziak"
izango dituzu!*

**¡APRENDER EUSKERA
TE COSTARÁ
MUY POCO!**



*¡El Ayuntamiento de Etxebarri
concederá ayudas especiales
para aprender euskera.*



*Podrás recuperar el 50%
del importe de la matrícula
en todos los cursos.*



*¡Si eres monitor
de Tiempo Libre, deportes, etc...
tendrás "ayudas especiales".*

bbk 